

ASTEKO GAIA

KAREN HERRIA

# Fronte bakarreko gatazka

Thailandia eta Birmania artean kokatua, azken horiekiko independentzia aldarrikatzen du Karen herriak. Karen gehienak Thaiandiako errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira, baina Birmaniako armadaren aurka borrokatzeko muga ezkutuan zeharkatzen dute hainbat gerrillarik. 2010ean haiekin izandako hartu-emana kontatu du Andoni Lubaki kazetariak.

| ANDONI LUBAKI |

Testua eta argazkiak

ARRATSALDEA oihanean zelatan pasa genuen, Thaiandiako armadaren beldur ginen. Behin muga pasatzen hasiz gero, atzera egiteko aukerarik ez zegoela esan zuten. Thaiandiako armadak estraperloan harrapatuz gero, zigorra gogorra omen da, ez nuen gehiago galdetu nahi izan. Gurekin generamatzan trasteak errekaren bestaldera eraman behar zituzten Nazio Askapenerako Karen Arma-

dako (KNLA) soldaduek, karenek bizi diren lurraldera. Horretarako ilunabarrari itxaron behar.

Mae Sot-etik 40 kilometrorra eraman gintuzten ziztu bizian 4x4 batean. Lau karen etorriko ziren nirekin, janaria gerlarietara eramateko asmoz. Errepide malkartsuan, gorabehera askoren ondoren erreka ikusi genuen muturren aurrean, supituki. “Beste aldean karenen



Ume soldadu bat, Paa Looko fronte inguruan.

## KAREN HERRIA

lurrealdea dago, KNLA borrokatzen den tokia. Orain Thailandiako armadako militarrik ez ote dagoen begiratzaren ari gara. Gure pasabideak ezin dituzte jakin, bestela beste batzuen bila hasi beharko dugu. Erreka pasatzean ezin dugu irratrik erabili, ezta telefonorik ere. Etsaiak aurkitu gaitzake bestela”, azaldu zuen Thee Mun-ek.

Halako batean, errekan bestaldean, sastraka batzuk mugitu ziren eta denak adi geratu ginen harantz begira. Gizon txiki gihartsu bat agertu zen eta pasatzeko keinua egin zigun. Galtzak erantzi, motxilak buru gainean jarri eta erreka oinez igarotzeari ekin genion. Lokatzez blai iritsi ginen banbu enborrez eginiko kanpamentura. Inork ez zuen hitzik egin lehenbiziko hoge minutuetan. Hotzez akabatzen geunden eta berotzeko whisky botila bat eskaini ziguten. Ondoren, lotara joan ginen, zelatan geratzea zegokienak izan ezik. Txakurrei zaunka egin ez zezaten muturra lotu eta zegoen argi txiki bakarria itzali zuten.

**“Ume nintzela hasi nintzen gerlan eta hori baino ez dakit egiten. Ez dut ezertxo ere ikasi, ez baitut aukerarik izan. Badakit bihar bertan hil naitekeela eta hortaz ez dut etorkizunaz asko pentsatzen”**

**Moe Khoo Too, karen soldadua**

Hurrengo egunean, Moe Khoo Too deituriko soldadua gerturatu zen gosariarekin. Tea eta arroz eginiko ogi borobila jan genuen denok. Jakin-mina piztu nien karen gerrillako soldaduei, ea zertara etorri nintzen. Paa Loo frontera joatea nuela helburu. “Urruti dago hura, baina nahi baduzu lagunduko dizut”, esan zidan Moe Khoo Took.

Eguna prestakizunetan pasatu genuen. Ekipajea gutxi bazen ere, bidearen nondik norakoak ondo jakin behar genituen, Birmaniako Junta soldadua edonon aurki genitzakeelako. Karen lurraldea jasaten ari den gerratea, gune pare batean izan ezik, gerrilla gatazka da. Segadak, minak, frankotiratzaileak. Edonon egin dezake batek topo horrelako arriskuekin. Oihanean aurkitzen den ur asko gainera ez da edangarria, eta kontrakoa badirudi ere, janaria lortzea zaila egiten da. “Txakur bat eramango dugu gurekin, etsaia usaindu dezan”, adierazi zuen Moe Khoo Took, irribarretsu. Lagun eta bizkartzain izango nuen

## Munduko gerrillarik zaharrena

Nazio Askapenerako Karen Armada (KNLA) munduan dagoen gerrillarik zaharrena da. 1946. urtean sortu zen eta 1947az geroztik borrokan dihardu Birmaniako Junta Militarren aurka. 2009an 6.500 soldadu inguru zituzten –zaila da egiaztatzea, baina hori da erabiltzen den kopurua–. Karen lurraldearen independentzia aldarrikatzen dute, Birmania hegoaldean. Lurralde honek Thailandia eta Birmaniarekin egiten du muga eta baliabide natural ugari zonaldea da, zafiroa, petrolioia, gasa, egurra eta ikatza tartean.

Arlo politikoan diharduen talde bat ere badu, Karen Nazio Batasuna (KNU). Birmaniako diktadura militarra dela-eta, Thailandiako Mae Sot herrian egiten ditu agerraldiak. Hain zuzen, karen tribuko gehienak Thailandiako errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira –Mae La eta Nuh Poh kanpamentuetan

gehienbat–. Junta militarren aurka borrokatzen diren soldadu asko ere Thailandian bizi dira, borrokatzera ezkutuan mugaz bestaldera joaten badira ere. Halere, bada oraindik karen lurraldean bizi den familiarik. Gatazka baten erdian bizi diren arren, euren eskola eta ospitaleak dituzte.

KNLAK historia gorabeheratsua izan du. Ahultasun unerik handiena 1994ko azaroan jasan zuen. Urte horretan, KNLAKo kide batzuek Karen Armada Budista Demokratikoa sortu zuten (DKBA), gerrilla kristau ebanjelistek gobernatzeko zutela argudiatuta –budista da karen populazioaren gehiengo–. Monje budistek gidatu zuten gerrilla berria eta sortu bezain pronto Birmaniako Junta Militararekin su-etena sinatu zuten. Bizpahiru hilabetetara, DKBA eta KNLA borrokan hasi ziren euren artean –DKBA Bir-

maniako Junta Militarren laguntzaz–. Borroka horiek zirela-eta, KNLAK kontrolatutako hainbat oihaneko hiri galdu zituzten, esaterako Kawmoora, Imawaddy eta Myawaddy. Thailandian dauden errefuxiatu kanpamentuetan ere liskar ugari jazo zen.

Gaur egungo Birmanian hainbat etnia bizi dira, Kachin, Karenni eta Shan-ak kasu. Talde etniko bakoitzak du bere talde armatua. 2010. urteaz geroztik, gerrilla horietako gehienak batu egin dira Fronte Komun deritzon taldean –baita DKBA eta KNLA ere–. Fronte Komun horretako liderretako bat da Moe Thee Zun. Gaur egun, ia egunero batzen edo irtezen da gerrilla bat Fronte Nazionalera, eta talde disidenteak ere ia egunero sortzen dira. Horrek buruzagi politikoak adosteko eta ildo politiko jakinak bateratzeko zailtasunak ekartzen ditu.



Thee Mun oihanean, Paa Loorako bidean etsaiei tiro egiten.

gerlariari galdetu nion ea zenbat urte zeramatzan gatazkan. “Dagoeneko ez dakit, gaztea naizen arren oraindik! 34 urte besterik ez ditut eta ume nintzela hasi nintzen gerlan, nire aita eta aitona bezala. Besterik egiten ez dakit. Nire aitona-amonek bazekiten lurra landatzen, aitak ordea ez, eta nik are gutxiago”. “Eta gerra hau amaitzean zer egingo duzu?”, berriro nik. Isilune baten ostean, ondoan zuen Zum Khuy soldaduari zerbait esan zion. “Ez dakit. Gerra egiten bakarrik dakit. Ez dut ezertxo ere ikasi, ez baitut aukerarik izan. Gerra egiteagatik ordaintzen didate zertxobait, aitari bezala. Badakit gainera hiltzeko arriskua dudala, bihar agian! Hortaz, ez naiz etorkizunaz asko pentsatzen duen horietakoa. Hemen ez dut uste etorkizunean inork pentsatzen duenik. Baina borrokan

jarraitu beharra dugu, etorkizun bat izan dezaten gure seme-alabek”.

Abiatzeko unean berriro ere ilunabarra da. Oihanean lo egingo genuen, zehazki non aurreikusi gabe. “Gerrilla gatazka da hemen inguruan erabiltzen den borrokarako modua, hortaz ezer finkorik ez”, azaldu zidan Thee MuneK. Lan neketsu eta gogorra da oihanean ibiltzea, kosta egiten zitzaigun metro bakarra ibiltzea ere. “Distantziari erreparatzen badiozu, ez dago urruti Paa Looko frontea. Baina oihanak bidea zaildu egiten du”, jakinarazi zidan Thee MuneK. Hori esan bezain pronto guregana zetozen tiro hotsak entzun genituen. Moe Khoo Took lurrera bota ninduen babesteko asmoz eta beste gerlariak tiro egiten hasi ziren. Hamar minutu igaro ondoren, azkar batean jaiki eta korrika egiteari ekin



**ANDRA MARI**  
restaurante



Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia  
Tel.: 94 456 00 05 • [www.andra-mari.com](http://www.andra-mari.com)

## MOE THEE ZUN

IKASLE DEMOKRATIKOEN FRONTEKO BURUA

### «Bake prozesua hiru urteren buruan lortzeko gaitasuna dugula iruditzen zait»

Birmaniako Junta Militarren aurka borrokatzen den Fronte Komuneko gerriletako bat da Ikasle Demokratikoen Frontea, 1988. urtean sortua. Liderrarekin mintzatu gara.

#### Zein helbururekin sortu da Fronte Komuna, Birmaniako gerrillen batasuna?

Gerrilla bakoitzak bere kabuz baino ez badu borrokatzen, ez da garaipenik lortuko. Hamabi bat gerrilla batu dira momentuz eta helburu bat baino gehiago ditu Fronteak: batetik, Birmaniako Junta Militarrek bake prozesua onartzea; eta bestetik, diktadurarik ez dagoenean, Birmania nazio federalista izateko oinarriak jartzea, etnia bakoitzaren kultura errespetatuko duen batasuna eraikitzea, alegia.

#### Zer nolako estrategia erabiliko duzue Birmaniako Junta Militarrek bake prozesua onartu dezan?

Hiru ildo jarraituko ditugu. Lehenbizikoa da Birmaniako diktadura pairatzen ari den herria Juntaren

aurka mobilizatzea. Bigarrena, nazioartean ere kanpaina indartsua egitea diktaduraren aurka. Aung San Suu Kiy askatuta, nazioartean ere oihartzuna izango dugu, bera baita gure pertsonaiarik ezagunena eta mediatikoa. Eta azkenik, borroka armatuan jarraitzea, hainbat lurraldetan baina helburu berarekin: bake prozesua abian jartzea. Horretarako, borroka armatuaz ari naiz, estrategia ere aldatu behar dugu. Fronteak ahaztu behar ditugu eta gerrilla gatazka hasi, hau da, eraso eta ospa egin. Ez bakarrik landa inguruan, baita hirietan ere, beti zibilen biziak errespetatuz, noski! Kontuan izan behar dugu gu baino soldadu gehiago dituela Birmaniako armadak. Bake prozesua hiru urteren buruan lortzeko gaitasuna dugula iruditzen zait, gauzak ondo eginez gero.

#### Estatu federal bat aipatu duzunez, nola antolatu beharko litzateke Birmania diktadurarik gabe?

Etnia bakoitzaren autonomia errespetatuko duen Estatua izan behar-

ko du, hau da, estatu federala. Estatu osorako konstituzio bakarra egongo litzateke, baina estatu bakoitzak (adibidez Karen Estatuak) autonomia propioa izango luke, bere legeak, beti ere Birmaniako konstituzioa aintzat hartuta. Goiko eta beheko ganberak egongo lirateke. Beheko ganberako partaideak “pertsona bat, boto bat” printzipioa jarraituta aukeratu beharko lirateke eta goiko ganberan lurralde bakoitzak pertsona kopuru berbera izango luke. Ekonomia arloan, konstituzioan agertuko lirateke erreforma guztiak. Momentuz hori da gure artean hitz egin duguna baina laburbilduz esan dezaket landa erreforma bat behar dela, lurra nekazariei eman behar zaizkie eta horiek Estatuaren laguntzaz landu. Merkatu librea ere egongo litzateke, Estatuak kontrolatua. Ongizatea izango litzateke helburu nagusia eta horretarako barne merkatu bat sortu beharko litzateke, gaur egun esportazioetara dagoen menpekotasuna eteteke.





Atzean dagoena Moe Khoo Thoo da, gerora hil zuten karen gerrillaria.

genion oihanean. Gaua arbola artean ezkutatuta egin ondoren, hurrengo goizean iritsi ginen Paa Looko frontera.

### Paa Loo, minaz jositako frontea

Karen Armada Budista Demokratikoak (DKBA) eta Nazio Askapenerako Karen Armadak 2010. urtean su-etena sinatu ostean, bat eginik borrokatzen dute Paa Loo fronteko zonaldean, Birmaniako Junta Militarren aurka. Minaz josia dago eta frankotiratzaileak edonon daude. Han ezagutu nuen Moe Thee Zum, Birmaniako Ikasle Demokratikoen Fronteko buruzagia –1988ko Rangooneko liskarren ondoren sortutako gerrilla–: “Gerra hau oso ankerra da. Hildako asko jasan ditugu zonaldean, azken urteotan. Nire anaia bat hemen hil zuten, bere gorpua lurperatzeko tokirik ere ez dugu eta erre egin behar ditugu toki segururen batean. Hilobi batzuk badauzkagu, baina etsaia iritsi bezain pronto suntsitu egiten dituzte eta barruan dauden gorpuak bistaratu. DKBA gerrillakok ere hori egiten zuten, orain aldiz lagunak ditugu, baina ez naiz haiez fio. Ni budista naiz, baina ez naiz inoiz DKBAkoa izango,

**Karen Armada Budista Demokratikoak eta Nazio Askapenerako Karen Armadak bat eginik borrokatzen dute Paa Loo frontean, Birmaniako Junta Militarren aurka. Minaz josia dago eta frankotiratzaileak edonon daude**

interes propioengatik bakarrik egiten dute borroka, ez karen tribukoen interesen alde”.

Fronte batean gosaltzea gauza zaila da. Bake unea izaten da normalean gosaltzeko momentua, han aldiz, ezin genuen burua lurretik asko altxatu, frankotiratzaileek ikus ez gintzaten. “Gutun hau emango dizut, gure hizkuntzan idatzi dut. Inoiz gure lurraldean arazorik baduzu era-

kutsi eta laguna zarela ikusiko dute. Ea beste batean ikusteko aukerarik dugun”, agurtu ninduen Moe Khoo Took, oihanean bizkartzain izan nuen soldadua. Gainean neraman metalezko lepoko merkea oparitu nion, ez bainuen ezer gehiagorik nire esker ona adieraz-

teko, eta oihaneke bere postura itzuli zen. Handik hilabetera, Euskal Herrian, ordenagailua piztu eta Phee Twee karenaren mezua ikusi nuen postontzian: “Junta militarren soldaduek Moe Khoo Too erail zuten pasa den astean. Erreta agertu zen gorpua. Zuk oparitutako lepokoa zuelako ezagutu ahal izan genuen. Mila esker gure gatazka ezagutarazteko egin duzun lanagatik. Zure lagun Phee Twee”. ■

